

ELKAR LANEAN.—*Plentzia. Azterlanak — Estudios. Plentzia'*
ko Uri Udala. Ayuntamiento de la Villa de Plencia.
1985.

Gure artean gutitan ohi bezalako monografia. Gure historiaren ardatz nagusiak aski ezagunak dira, baina lekuan lekukoa, herriz herri, oso guti landu da. Gai horretaz Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak lan ederra bete zuen herrietako monografiak lehiaketarako deia eginaz eta hiri edo herri guzientzako bilduz eta argitaratuz 1970-76ra bitartean. Lan haiek, balioz oso desberdinak baziren ere, gaur egun Gipuzkoako edozein herritan lana egiteko abiapuntutzat laguntzen dute.

Baina Plentziako hau ez da historiari soilki itsatsia, etnografiarako zenbait eremu ere hartzen dituan.

Liburua alkatearen agurrez hasten da eta bertako lanen ildo nagusia era honetara doa: Jose M.^a Hormazak Plentziako etxeak aztertzen ditu XVIII. mendeko forutzaren bidez, era berean galdutako ohitura zaharrak bilduz, Andra Mariaren ikerketarako oharra eta jentilen kondaira zatiak; Xabier Alzibarrek, Joan Kruz Renteria eta Jose Antonio Uriarte eta Plentzia bertako euskara aztertzen ditu, lehenen testu eta oraingo ahozkeran oinarriturik; Gonzalo Duok Plentzia eta inguruaren bibliografia katalogatze saioa, San Pedro Kofradiako ordenantzak eta diru-kontuen liburua argitaratu eta ibai inguruko toki-izenak bildurik; Jose M.^a Etxebarriak Plentziako banatasunaren XIX gizaldi erdiko lekuko den J. Kruz de Renteriaren euskal testu ezezagun bat oharrez argitaratzen du; Anton Erkorekak Barrika, Plentzia, Gorliz eta Lemoizko heriotza estadistikak (1970-79); Iñaki Bengoetxeak ipuiak eta aintzinako kondairak; Antxon Agirrek itsas-mareaz erabiltzen ziren erroten ikerketa; Iñaki Gamindek Gaminiz inguruko azpi-euskalkiaren aditza. Eta, bukaeran, 1879an argitaratu ziren Ordenantzak fakzimilez birargitaratuak eta, era berean, 1888an burdinbidea jartzeko egin zen proiektuarena.

Lan batzuk euskaraz beste batzuk erdaraz, bakoitza bere gaian eta bere mailan guziak dira interesgarriak. Liburu aberatsa da bere edukinez.

Argazkiz eta marrazkiz ez ezik liburua bera ere barne eta kanpoko egituraz ondo hornitua da.